

# Paul Watzlawick, ikuspegi sistemikoaren ikertzaile

MIKEL HARANBURU

Psikologia Fakultatea  
ILCLI. EHU

## (Paul Watzlawick, researcher of the systemic perspective)

### Abstract

*Watzlawick leaned on Gregory Bateson's, Don Jackson's and Milton Erickson's theories and strategies. He worked for 46 years at the Mental Research Institute (Palo Alto), and was one of its central pillars. He applied the systemic theory, cybernetics and constructivist perspective to the field of communication, and was one of the founders of brief therapy. He authored several books that have had wide resonance. He was very receptive to the perspectives that criticized and supplemented his own positions: the constructionist, the strategic, the experiential, the psychoanalytical, the feminist and the social perspectives.*

**Keywords:** *systemic, constructivism, communication, brief therapy*

### 1. Sarrera

Austriako Villach hirian jaio zen Paul Watzlawick, 1921ean, eta Estatu Batuetako Kalifornia Estatuko Palo Alto hirian hil zen, 2007an. Veneziako unibertsitatean aurkeztu zuen filosofiako doktorego-tesia, 1949an. Zurichen jaso zuen prestakuntza analitikoa, eta ondorengo urteetan psikoanalisia eta psikoterapia irakatsi zituen Salvadorko unibertsitate nazionalen. 1960an Albert Schefflen ezagutu zuen Filadelfian, eta hark Bateson eta Don Jacksonekin harremanetan jarri zuen. Batesonen lanak lehenagotik ezagutzen zituen, eta oso interesgarriak iruditzen zitzaizkion. Don Jacksonek, berriz, *Mental Research Institute* (MRI) sortu zuen, 1959an, Palo Altoan, eta Institutu horretan lan egiteko hartu zuen Watzlawick. 46 urtez lan egin zuen Institutu horretan Watzlawickek, eta 2006an hartu zuen erretiroa, osasun arazoek behartuta. Bateson Institutu horretako kide inoiz izan ez bazen ere, haren printzipioek gidatu

zuten MRIen jarduera: zibernetika giza-komunikazioari aplikatzea, konstruktibismoa, Familia Terapia...

Palo Altoko Eskolaren bizkarrezurra Mental Research Institutut izan bada ere, Estatu Batuetako eta Europako hainbat lurraldetan banatuta lan egin dute eskola horretan kideek. Paradigma batekiko atxikimenduak elkartu ditu, hurbiltasun fisiko batek baino areago. Horregatik, «Unibertsitate Ikustezina» izenaz ere ezagutzen da Palo Altoko eskola. Iker-eremu askotan (antropologian, soziologian, psikologian...) egin dute lan eskola horretako kideek, baina axioma batzuen inguruko adostasunak elkartu ditu. Axioma horietako batzuk Watzlawickek (1967) berak azaltzen ditu: ezinezkoa da komunikatu gabe egotea, digitalki komunikatzen ez garenean analogikoki komunikatzen baikara; komunikazio orok du eduki eta harreman maila, baina komunikazioaren oinarria harreman-prozesuetan dago; pertsonen arteko harremana definitzen duena komunikazio-ekintzen segida puntuatzeko modua da; pertsonen arteko komunikazioa simetrikoa edo osagarria izan liteke.

## 2. Palo Altoko Eskolaren oinarriak eta hazkundera

Paul Watzlawickek, berak esaten zuen moduan, hiru erraldoiren eraginari esker egin ahal izan zuen bere lana, Gregory Bateson, Don Jackson eta Milton Ericksonen eraginari esker, hain zuzen ere. Watzlawickekengan eta, oro har, Palo Altoko Eskolan eragin nabaria izan zuten autore horiek. 1952an, Rockefeller Fundaziotik diru laguntza bat lortu zuen Gregory Batesonen iker-taldeak komunikazioaren arloko paradoxak aztertzeke. Don Jackson ere berehala sartu zen talde horretan. Handik laster, 1954an, komunikazio eskizofrenikoa aztertzeke laguntza jaso zuen iker-taldeak. 1956an argitaratu zuten *Toward a theory of schizophrenia*, lotura bikoitzeko egoera aztertzen zuen artikulua ospetsua (Bateson, Jackson, Haley eta Weakland, 1956).

Watzlawickek bere lehen liburuan, *An Anthology of Human Communication. Text and Tape* liburuan (1964), Batesonen oinarrizko ideiak aplikatu zituen *Mental Research Institute*teko kasu praktikoak aztertzeke. Institutu horretatik irten den guztiak Batesonen jeinuaren marka daramala aitortzen du Watzlawickek. Bere bigarren liburua, *Pragmatics of Human Communication. A Study of Interpersonal Patterns, Pathologies, and Paradoxes*, Don Jackson eta Janet Beavinekin batera idatzi zuen (1967), eta bertan Batesonen komunikazioari buruzko ideia nagusiak eman zituen. Pertsonen arteko harremanetan komunikazioak betetzen duen rola, komunikazioaren axiomak, komunikazio mailak eta tipo logikoen teoria, lotura bikoitzaren teoria eta komunikazio paradoxikoa aztertu zituen bertan. Liburu hau izan da Watzlawicken liburu guztietatik eragin gehien izan duena. Gaur egun ere oraindik komunikazioa aztertzeke oinarrizko liburutzat hartzen da.

Lotura bikoitzaren teoriaren oinarriak Batesonek finkatu zituen. Giza elkarreaginean paradoxak dituen ondorenak «*Toward a Theory of Schizophrenia*» (1956) idazlanean deskribatu zituzten lehenengo aldiz Bateson, Jackson, Haley eta Weaklandek. Liburu horretan eskizofrenia ez da psikebarneko nahaste baten moduan ulertzen, pertsonen arteko harremanen segidak eragindako portaera moduan baizik. Bere gurasoengandik jasotako kontraesanezko aginduei emandako erantzun moduan ulertzen zuen Batesonek gaixo eskizofrenikoaren komunika-modua. Guraso bietako batek agindu bat ematean, eta beste gurasoak kontrako agindua ematean, haurra irteerarik gabe gertatzen zen, kontraesanezko aginduen sarea harrapatua.

Lotura bikoitzaren teoriaren deskribapen zehatza Watzlawickek eman zuen (1967). Giza-elkarreaginean lotura bikoitza gerta dadin, ezinbestekoa da honako baldintza hauek betetzea: 1) Bi pertsonak edo gehiagok elkarren artean harreman osagarri estu eta sendoak dituzte, beren biziraupen fisiko edo/eta psikologikorako garrantzi handia dutenak. 2) Testuinguru horretan gutxi egituratutako mezu edo agindu bat ematen da: a) zerbait baieztatzen duena, b) baieztapen horri buruzko zerbait baieztatzen duena, eta c) bi baieztapenek elkar ukatzen dute. Honela, agindua obeditzeko, beharrezkoa da desobeditzea. 3) Azkenik, mezuaren hartzaileak ezin dezake ihes egin mezuak ezarritako markotik, ez fisikoki, ez metakomunikazio bidez. 4) Pertsona guztiek bizi izan dute inoiz lotura bikoitzeko harremanen eragina, baina horrek ez du esan nahi guztiak eskizofreniko bihurtzen direnik. Lotura bikoitzaren eragina larria eta patologia-sortzaile da harreman paradoxikoa iraunkorra denean eta ohiko igurikape bihurtzen denean, hau da, elkarreaginerako eredu iraunkor bihurtzen denean.

1967an, *Brief Therapy Center* sortu zuten Richard Fisch, Watzlawick eta kideek, eta bertan Jackson eta Ericksonen diagnostiko- eta terapia-teknikak aztertu eta erabili zituzten. Watzlawickek zioenez, Jacksonek eta Ericksonen modu intuitiboz jokatzeko zuten diagnostikoan eta terapian, baina asmatu egiten zuten. Esku-hartzearen helburua arazoak ebaztea eta familien sufrikarioa gutxitzea zen. Esku-hartzearen egitekoa ez zen arazo baten iraganeko arrazoi ezkutuak ulertzea, arazoak ebazteko modu aldrebasei eusten zieten arauak aldatzea baizik. Arazoei erantzuteko modu disfuntzionalei eusten dieten atzeraelikadura-bukleak desegin eta atzeraelikadura-bukle berriak sortzea. Aldaketa horiek eragiteko teknika paradoxikoak erabiltzen ditu.

1974an, *Change. Principles of Problem Formation and Problem Resolution* liburuan, sintomaren preskribapena eta 1. eta 2. mailetako aldaketak aztertu zituen. Sistemaren barneko faktore batzuk aldatzera mugatzen direnak dira 1. mailako aldaketak. Adibidez, egitura maniako-depresiboaren barnean, egoera batetik bestera iragaten da pertsona, nortasunaren egitura beraren barnean. Sistemaren iraunkortasuna ziurtatzeko erregulazio-prozesutzat har liteke 1.

mailako aldaketa: «*zerbait aldatu, ezer ez aldatzeko*», «*zenbat eta gehiago aldatu, orduan eta gehiago gauza bera da*». 2. mailako aldaketetan, berriz, sistema bera da aldatzen dena. Adibidez: ametsetako hersturari ihes egiteko, ametsaren barneko aldaketak gauzatu orde, esnatu egin behar da. Horregatik, jokaera aldatzeko ez da jokaera bera zuzenki aldatu behar: jokaera gauzatzen den testuingurua edo komunikazio-sistema da aldatu behar dena. Sistemaren barnean gertatzen den aldaketa eta sistema bera ukitu eta aldatzen duen aldaketa garbi bereizten ditu Watzlawickek.

Sistema aldatzeko, berriz, haren funtzionamendu-arauak ulertu behar dira. Errealitatea aldatzeko ez da objektuen gain eragin behar, elkarrengaren, mezuen, errepresentazioen eta esanahien gain baizik. Kontzeptuen eta emozioen esanahia aldatzeko haiek inguratzen dituen testuingurua aldatu behar da, hau da, beste mugari batzuen barnean kokatu behar ditugu kontzeptu eta emozio horiek. Arazoa testuinguru ezberdinean kokatzen dugunean, egoerari esanahi berria ematen diogu. Izan ere, harremanak ez ditugu errealitatearekin izaten, haren irudiekin edo errepresentazioekin baizik.

Watzlawickek lehen mailako eta bigarren mailako errealitateak bereizten ditu *How Real is Real? Communication, Disinformation, Confusion* izeneko liburuan (1976). Lehen mailako errealitatea objektuen bereizgarri fisikoei dagokiena da, eta zentzuen bidez jasotzen dugu. Bigarren mailako errealitatea, berriz, objektuen esanahiari eta balioari dagokiena da.

Watzlawickentzat, eta, oro har, Palo Altoko Eskolarentzat, terapiaren egitekoa pertsona gaixoa aldatzea da, eta ez gaixoari bere arazo sakonen kontzientzia harraraztea; horretarako terapia paradoxikoak gaixoaren hizkera erabiliko du (Watzlawick, 1978). Beraz, gaixoaren iraganean baino gehiago, haren orainean ekiten du ikuspegi sistemikoak. Horretan urrundu egiten da ikuspegi analitikotik, eta portaeraren terapiaren ikuspegira hurbiltzen da, sintomak desagerrarazteko portaera paradoxikoak preskribatzen baititu. Hala ere, portaera positiboak saritzen dituen errefortzurik ez du erabiliko ikuspegi sistemikoak.

Palo Altoko Eskolaren paradigmak toki garrantzitsua hartu du komunikazioaren antropologiaren eremuan. Komunikazio-prozesuei buruzko ikerketa autonomoen eremua garatu du. Komunikazio-prozesuak jarri ditu pertsonaren antolamendu psikologikoaren oinarrian eta gizarteko antolamendu mota ezberdinen jatorrian. Komunikazio guztiek dituzte eduki eta harreman maila eta harreman mailak biltzen du edukiarena (Watzlawick, Beavin eta Jackson, 1967). Harremana edukiaren eta sustantziaren aurretik dago. Ikuspegi sistemikoak subjektu monadikoari dagokion kokagunea kendu egiten dio pertsonari eta multzo baten osagaiari dagokion tokia ematen dio. Pertsonaren ezaugarri psikologiko sustantiboak ez daude harremanen aurretik. Pertsona ez

da ingurunetik isolatua dagoen errealitate autonomoa. Komunikazio-egiturek eratzen dute pertsona. Gizarte- eta familia-ingurunean txertatua dagoen errealitate moduan aztertu behar da pertsona.

Watzlawickek gizarteko zismogenesi- edo bereizkuntza-prozesuak deskribatzen dituenean, Batesonen ildoari jarraitzen dio. Gogoratu besterik ez dago latmul gizarteko *Naven* zeremoniaz hark idatzia (1936). Batesonentzat ikuspegi psikoanalitikoak gehiegi azpimarratzen du pertsonaren garapen psikologikoaren alderdi diakronikoa, eta garrantzi gutxiegi ematen die inguru-nearekiko harremanetan gertatzen diren zismogenesi-prozesu sinkronikoei. Pertsonak inguru-nearekin dituen harremanetan aurkitu behar dira faktore patologikoak, eta ez pertsonaren baitan. Ez dago banakako patologiarik; inguru-nea da patologia sortzen duena. Sistemaren sintoma bihurtzen da pertsona. Hala ere, oso azpimarratzekoa da Batesonek egitura soziala eta egitura kulturala bereizi egiten zituela. Egitura kulturalak eskema logiko bat edo traszendental praktikoa bat adierazten du, eta ez dagokio errealitate enpiriko bati. Egitura sozialak, berriz, beren rol sozialaren arabera elkartzen eta bereizten ditu pertsonak. Batesonentzat egitura guztiak testuinguru batean gertatzen dira eta komunikazioaren bidez sortzen dira egiturak. Batesonen analisiak ez daude hizkuntzaren alderdi formalari eta sinbolikoari lotuak, hizkuntza-ekinzei lotuak baizik.

Paul Watzlawickek MRIen egin du batez ere lana, eta ikuspegi konstruktibista aldarrikatu du. 1970 urtera bitartean, familian zentratzen zen familia-terapiaren azterketa, eta terapeuta kanpoko behatzailea besterik ez zen. 1984an *Invented Reality*-ren (Watzlawick, 1984) argitalpena zuzendu zuen Watzlawickek. Humberto Maturanak eta Francisco Varelak pertzepzioari buruz egindako lanak eta Heinz von Foersterrek bigarren zibernetikaz egindakoak daude familia-terapiaren teoria konstruktibistaren oinarrian. Pertsonak pertzepzioaren bidez ikusten duena ez dago haren esperientzia-eremutik kanpora. Kanpoko munduak harengan sortzen duen barne-jardueratik dator. Ikuspegi konstruktibistatik begiratuta, pertsonak errealitateaz duen errepresentazioa bere espirituaren eraikuntza da. Beraz, ikuspegi konstruktibistatik egiten den familia-terapiaren arabera, familia taldeak edo terapia taldeak elkarreraginean eraikitzen duen errealitatea garrantzitsuagoa da, egia edo errealitatea aurkitzea baino. Psikoterapiaren bidez bezeroak lortu behar duena ez da arrazoiaren jabe den terapeutaren laguntzaz egia aurkitzea, baizik sistema terapeutikoaren beste kideekin batera eraikuntza operatibo batera heltzea eta posibleen mundua hedatzea. Pertsonak errealitatea eraikitzeke duen modua aldatzea da psikoterapiaren egitekoa. Izan ere, gizakia nahasmenera daramana ez da errealitatea bera, errealitate hori interpretatzeko modua baizik. Terapia konstruktibistak egin behar duena hau da: nahaste-iturri diren errealitatearen eraikuntzak beste eraikuntza batzuek ordezkatu.

### 3. Ikuspegi sistemikoaren joera ezberdinak

Ekarpen garrantzitsuak egin zituen Watzlawickek familia-terapiaren. Besteak beste, sistemen teoria, zibernetika eta konstruktibismoa komunikazioaren arlora aplikatu zituen eta terapia laburraren sortzaileetakoa izan zen. Hogeitik gora libururen eta ehundik gora artikuluren egile edo egilekide izan da. Jaso zituen sarien artean aipatzekoak dira Amerikako Familia-Terapiaren Elkar-teak 1981ean emandako «Lorpen Berezientzako Saria», Austriako Villach hiriak 1987an emandako «Paracelsus Ring», Milton H. Erickson Fundazioak 1988an emandako «Bizitzako Lorpenen Saria», Ezkontide eta Familia Terapiaren Elkar-te Amerikarrak 1982an emandako «Familia-Terapiari egindako ekarpenengatik bereizitako irakaslearen saria», Liegeko eta Bordeaux-III-ko Unibertsitateek 1992an emandako Doctor Honoris Causa tituluak eta Austriako Carintia Probintziak 1993an emandako Ohorezko Domina.

Ikertzaile apala eta langile aparta izan da Watzlawick. Begirune handia erakutsi die inoiz bere bidaide izan ondoren, ibilbide autonomo batez beregandik bereizi direnei. Ibilbide propioa hartu dutenen artean aipatzekoak dira konstruksionismo soziala, ikuspegi estrukturala, estrategikoa eta esperientziala.

3.1. 1990 inguruan Gergenek *konstruksionismo sozialaren* oinarriak jarri zituen (Gergen, 1994). Errealitatearen eraikuntza ez da hautemate prozesuaren barneko mekanismoetan gertatzen, baizik harreman sozialetan, harreman horietarako erabiltzen den hizkuntzaren argitan. Norberaren eta bestearen identitatea, emozioak eta esanahiak harremanen testuinguruan sortutako elkarriketetan ekoizten dira. Elkartruke horietan sortutako kontakete-tan edo narrazioetan sortzen dira identitate horiek. Norberaren identitateari buruzko narrazioak gizarte harremanetan sortuak dira, norberak aukeratuak baino gehiago.

Konstruksionismo sozialak narrazioa erabili du terapiako teknika nagusi moduan. Norberaren identitate bateratu bakarrik ez dago, eta ez dago norberaren ahotsa bakarrik, ahots anitz baizik. Terapeutari dagokio narrazioen bidez ahots ezberdin horiei irteera ematea. Terapeutaren egitekoa elkarriketan esku-hartuz arazoa ezabatzen laguntzea da. Hurbilketa narratiboan bezero-sistemak bere egoeraz egiten duen narrazioa entzuten du terapeutak, gidatu gabeko elkarriketa batean. Ingurunearen, egoeraren eta bere buruaren hautemate berri bat garatzen du bezeroak. Ezer ez da derrigorrean ezartzen; dena elkarrekin eraikitzen da. Terapeutak ez ditu bere baloreak ezarri behar. Kontrollean oinarritutako ingeniari-tza edo zibernetika albora utzi behar dira. Erabaki hori hartzera heldu dira Harold Goolishian, Harlen Anderson eta Lynn Hoffman (Anderson eta Goolishian, 1990, 1992; Hoffman, 1985).

Pertsonen bizitako emozioak eta esperientziak gizarte harremanen sarean txertatzen dira eta sozialki eraikitako narrazioen bidez ulertzen dira. Ziberne-

tikan eta haren kontrolean oinarritutako metafora mekanizisten ordeztu teoria literarioetatik ateratako metaforak erabiltzen dira. Pentsamendu konstruktzionista postmodernoa da eta ez da objektibitatean eta arrazionalitatean oinarritzen, pentsamendu modernoa bezala. Arrazionalismoaren kontzeptuak, hala nola «mundua» edo «espiritua», desegin egiten ditu eta etika aldarrikatzen du. Pertsonen eta sistemen arabera aldatzen diren ikuspegi baliokideak erabiltzen du gertaeren garrantzi objektiboa. Baieztape unibertsalen aurrez aurre, Heisenbergen ziurtasunik eza aldarrikatzen da. Ikuspegi konstruktibistaren arabera, pertsona bakoitzaren barneko prozesuetan oinarritzen da jakinduriaren eraikuntza; konstruktzionismo sozialaren arabera, berriz, munduaren eraikuntza ez da bakoitzaren espirituaren barnean kokatzen, gizarteko harremanen sarean baizik.

3.2. **Ikuspegi estrukturalaren** ordezkaria Salvador Minuchin da. Filadelfiako *Child Guidance Clinicen* zuzendaritza hartu zuen 1965ean, eta Haleyren lankide izan zen bertan hamar urtez. Bezeroen funtzionamendu-arazoak familiarren eta ingurunearen desantolamenduarekin erlazionatuak ikusten ziren. Hori dela eta, sistemen teoria oinarritutako tratamendu bat garatu zuen. Ikuspegi horren arabera, kideen batuketan baino zerbait gehiago da familia. Familiako kide bakoitzaren portaera baino garrantzitsuagoa da kideen arteko elkarreragina. Komunikazioaren bidez elikatzen dira familiako kideak. Ikuspegi honek, beraz, sistemaren egiturari ematen dio batez ere garrantzia: osagaiak eta haien arteko harremanak, kideen eta azpi-sistemen arteko mugak, funtzionamendu-arauak. Familia batek bizitzako aldaketetara egokitzeko zailtasunak baditu, egitura disfuntzionala duelako da, hots, familiarren funtzionamendu-arauak ez daudelako ingurune eskakizunetara egokituak. Banakako aldaketa eta familia-sistemaren aldaketa elkaturik gertatzen dira eta familiako harremanetarako ohitura estereotipatuak aldatzea da terapiaren helburua. Ohitura estereotipatu horien oinarrian dauden gatazka ezak ezabatatu eta familia-sistema berregituratu behar da. Horrela, familiak behar beste autonomia ziurtatu ahal izango die bere kideei, eta, aldi berean, kidetasun-sentimendua ere sortuko da familiako kideen artean.

3.3. **Ikuspegi estrategikoa** Milton Ericksonen eta Batesonen lanean oinarritzen da, eta ikuspegi honen ordezkari Jay Haley har liteke. Batesonen lankide izana, eta 1967ra bitartean MRlen lan egina da Haley. Batesonen teoria sistemikoa eta Ericksonen praktika terapeutikoa elkartu eta *Strategies of Psychotherapy* argitaratu zuen, 1963an. Ondoren, Salvador Minuchinekin lan egin zuen Filadelfiako *Child Guidance Clinicen*. 1975ean Washingtongo *Family Therapy Institut* eratu zuen, Cloé Madanesekin batera. MRI eta Minuchinen lanetan oinarritutako terapia proposatu zuen. Minuchinek egiten zuen moduan, garrantzi handia ematen die familiako hierarkiari eta botere-banaketari, bizitzako baldintza sozial eta materialei. Haleyrentzat, zailtasunei aurre egiteko modu desegokietatik sortzen dira familiako arazoak, eta sistemaren fun-

tzionamenduaren zurruntasunak eusten die. Harremanak kontrolatzera doazen elkartruke simetrikoa eta osagarriak eta komunikazioetako paradoxak aztertzen ditu. Ikuspegi honen arabera, psikoterapiaren egitekoa honako urrats hauen bidez gauzatzen da: ebatz litezkeen arazoak definitu, helburuak finkatu, helburuak lortzeko estrategiak pentsatu, esku-hartzearen ondorenak ebaluatu, bezeroaren erreakzioaren bidez, eta estrategiak berbideratu. Haleyk dio, egoera definitzeko modua eta arazoa ebazteko erabilitako soluziobideak hel daitezkeela arazoaren zati izatera.

3.4. *Ikuspegi esperientzialaren* ordezkari diren Virginia Satir (1972), Carl Whitaker (1977) eta Maurizio Andolfik (1987) familiako kide bakoitzaren esperientzia emozional eta afektiboei, bakoitzaren rolari eta hazkuntza pertsonalari ematen diete garrantzia. Terapiaren helburua pertsonen eta familiaren garapena lortzea da, arazoak ebaztea baino gehiago. Bezeroa aldarazten duena ez da bere arazoa ulertzea. Aldaketa inkontzienteki gertatzen da, eta aldaketaren emaitzetako bat kontzientzia da. Terapeutaren nortasunak eragin handia du prozesu terapeutikoan, izan ere, terapiaren egitekoa ez baita arazo espezifikoa askatzea, bezeroaren garapena lortzea baizik. Terapeutak bezeroaren esperientzia emozional sakona lortu nahi du eta horretarako haren nortasunaren alderdirik arkaikoenak ukitu behar ditu. Sentimenduak ez agertzeak eragin kaltegarria du pertsonen garapenean. Norbere barnean dagoena agertzea, norberarengana eta bestearengana irekitzea, esan beharrekoa barruan ez gordetzea eta boterearen gehiegikerien kontra borrokatzea sustatzen du terapeutak.

## 4. Ikuspegi sistemikoaren Europarako jauzia

4.1. 1965 inguruan Estatu Batuetatik Europarako jauzia egin zuen paradigma sistemikoak, baina Europako testuinguru soziala eta politikoa bestelakoa zen. 68ko Maiatzeko gertaerak gizarteko egitura zurrun eta zapaltzaileen kontrako errebolta izan ziren. Laing, Cooper eta Guattariren korrante antipsikiatrikoa izan zen hurbilketa sistemikoa osasun-erakundeetara ere hedatu zue-na, familia ingurunea gaindituta. Ikuspegi sistemiko amerikarra europarra baino pragmatikoagoa eta ekintzara zuzenduagoa zen; europarra, berriz, analitikoagoa eta kontzeptualizatzaileagoa zen. Terapiarako erabiltzen den denboraren kudeaketan ere alde nabarmenak zituzten amerikarrek eta europarrek. Europarrek ez zuten sinesten esku-hartze laburretan: aldaketak denbora eskatzen duenez, terapia laburrak axalekoa izan behar zuen, ezinbestean.

Amerikan heldutasuna lortu eta gero, Milango Familiaren Ikerketa-Zentruaren (Mara Selvini Palazzoli) eta Bruselasko Familiaren Ikerketa-Institutuaren bidez heldu zen familiaren terapia sistemikoa Europara. Mony Elkaïmek



New Yorken jaso zuen prestakuntza, Minuchin eta Andolfi prestatu ziren ospitale berean. Ondoren, Bruselasko Familiaren Ikerketarako Institutua fundatu zuen, Isabelle Stengersekin batera, eta *Cahiers critiques de thérapie familiale et de pratique de réseaux* sortu zuen, 1979an.

Mara Selvini Palazzolik eskizofrenikoen tratamendua hobetu nahi zuen eta familiako arazoak hiru belaunalditako prozesu patologikoen ikuspegitik aztertzen hasi zen. Horretarako, guraso bakoitzak bere jatorrizko familian bizi izandako zailtasunak kontuan hartu behar zituen. Portaeren konnotazio positiboa, familiako erritualen erabilera, berregituraketa paradoxikoa eta preskribapen paradoxikoak izan ziren bere ekarpen nagusiak. Ikuspegi estrategikoari bakarrik lehentasuna eman ordez, ikuspegi estrategikoa eta belaunaldien arteko berregituraketa historikoa hartzen ditu kontuan. Ikuspegi estrategikoa soilki kontuan hartzeak bezeroa deshumanizatzen du; beraz, estrategiarekin batera familiako kideen emozioak eta sufrikarioa ere kontuan hartu behar dira. Bestalde, Mara Selvini Palazzolik familia-terapiatik abiatu eta erakundeetan esku-hartze sistemikoa egiteko oinarriak ere jarri ditu. Familiako funtzionamenduari lotutako aurkikuntzak sistema konplexuagoetara hedatu ditu (Selvini Palazzoli, Anolli, Di Blasio eta Giossi, 1984).

4.2. Terapia sistemikoa Estatu Batuetan sortu zen, portaeraren teoriak indar handia zuen lurraldean, hain zuzen ere. 1970 inguruan Frantziara heldu zenean, bertan nahiko sustraitua zegoen beste joera batekin topo egin zuen. Frantzian psikoanalisi nahiko sustraitua zegoen, eta haren eraginez familia-terapiaren berrinterpretazio bat egin zen bertan. Bi korronteen elkar topatze horretan interesgarria izan zen, 1981ean, Watzlawickek eta Didier Anzieuk izan zuten eztabaida (Maruani eta Watzlawick, 1982). Bestalde, 1983an ospatu zen Toulousen familia-terapia psikoanalitikoko lehen kongresua eta kontzeptu sistemiko batzuk bereganatzen hasi zen ikuspegi psikoanalitikoak. Honela, Paul-Claude Racamierrek (Maruani eta Watzlawick, 1982) elkar trukerako eredu espezifiko moduan ulertuko du paradoxa. Didier Anzieuk elkarreraginaren ikuspegia eta komunikazio paradoxikoaren ideia bereganatzen ditu, eta transferentzia nahiz erresistentzia paradoxikoaren kontzeptuak erabiltzen hasten da. Ikuspegi psikoanalitikoak lantzen dituen lehen mailako prozesuak bigarren mailako prozesuetan nola txertatzen diren erakusten dute ikuspegi sistemikoaren paradoxek.

Eredu sistemikoak portaeren arteko elkarreraginari ematen dio lehentasuna; psikoanalisiak elkarreragin fantasmaticoari ematen dio lehentasuna. Horrela, terapia sistemikoarentzat begien aurrean gertatzen dena portaera transferentzialen bidez detektatu behar da banakako terapia psikoanalitikoan (Watzlawick eta Weakland, 1977). Eredu sistemikoak agiriko portaerak aztertzen ditu; eredu psikoanalitikoak, prozesu inkontzienteak. Eredu sistemikoak terapeutaren esku-hartze aktiboa azpimarratzen du; eredu psikoanalitikoak, familiaren fantasmak eta taldearen trasferta aztertzen ditu.

Ikuspegi psikoanalitikoak ez da terapian presente dauden pertsonetara mugatzen; belaunaldien arteko loturak oinarritzekoak dira eta garrantzi handia ematen dio belaunaldien arteko dimentsioari. Ikuspegi sistemikoari subjektuaren historia kontuan ez hartzea egozten zaio. Etorkizunari begira dago, iraganari baino gehiago.

Sintomak desagerrarazteari garrantzi gehiegi eman eta psikebarneko gatazkak kontuan ez hartzea ere egozten zaio ikuspegi sistemikoari. Baina ikuspegi sistemikoa ez doa zuzenki sintoma erasotzera, portaeraren terapia joan daitekeen moduan; sintoma kokatzen den elkarreraginezko testuingurua aldatzera doa terapia sistemikoa. Hala ere, esku-hartze terapeutikoaren amaiera sintoma desagertzearekin batera gertatzen da, nahiz eta sitomaren desagertzea ez izan beti bezeroa sendatzearen baliokide.

Psikoanalisiak ez du onartzen pertsona kaxa beltz bihurtzea, ikuspegi sistemikoak egiten duen moduan. Baina, ikuspegi sistemikoak ere ez ditu psikebarneko prozesuak ukatzen, nahiz eta metodologikoki bere azter-eremutik at uzten dituen. Ikuspegi sistemikoak dioenez, psikebarneko ametsak, fantasma eta errepresentazioak, hizkuntzaren bidez agertzen diren heinean bakarrik ezagutzen ditugu. Ikuspegi sistemikoarentzat, psikebarnean dagoena familiako harremanen sarea barneratzen sortu da.

4.3. Pertsona baten normalitatea edo osasun psikologikoa ebaluatzeko irizpide moduan errealitate egokitzeko gaitasuna erabili izan da. Baina, Palo Altoko Eskolarentzat, errealitate objektibo bat ezagutzeko ideia hautsi egin da Kantek geroztik. Watzlawick, Weakland eta Fishek (1974) diotenez, Kantek eta Schopenhauerrek garbi zuten gizakiak lehenik errealitatea asmatu egiten duela eta gero ahaztu egiten duela errealitatea berak sortua dela. Errealitate zientifiko eta sozialak geuk sortzen ditugu, eta gero errealak direla pentsatzen dugu. Bestela esanda, geuk ekoizten ditugun gertaerak errealitate datozkigula sinesten dugu. Teoriak erabakitzen du errealitatean zer ikus dezakegun. Autobetetzen diren auresateetan gauzak horrela balira bezala jokatzen dugu, eta gauzak horrela izatea ekartzen du jarrera horrek. Errealitatea sortu egiten dugu. Plazebo-efektua horretan oinarritzen da: bezeroaren buruan dagoen errealitatea sortzen du plazeboak.

Ikuspegi honetatik, pertsonok iritzi edo irudi subjektiboak bakarrik eduki ditzakegu errealitateaz. Objektu bat kategoria batean sartzen dugunean, objektuaren esanahi bat sortzen da, errealitate bat sortzen da. Horrela, objektu bat objektu jakinen klase batekin elkartzen dugunean, zaila gertatzen zaigu beste kategoria batean kokatzea. Izan ere, objektu bat beste talde batean sailkatzeko, haren marko semantikoa aldatu behar da. Terapian berregituraketa egiten denean ere, esanahia ematen duen markoaren aldaketa gertatzen da. Objektuaren esanahien markoa aldatzeak joko-arauak aldatzea suposatzen du. Joko-

arauen premisak aldatzen dira. Errealitate objektibo beraren aurrean, markoa aldatu eta errealitate ezberdinak ikusten dira.

Egokia ez den errealitatearen eraikuntza egokiagoa den beste batez ordezkatzeko da psikoterapian. Baina, eraikuntza berriaren bidez ere gauzak ez dira benetan diren moduan ikusten. Ikuspegi konstruktibistak garbi dauka munduaren ikuskera berria ere beste eraikuntza bat dela. Terapia psikologikoak sarritan porrot egiten du eskoletan, eta, hala ere, psikologoak kontratatzen ditu Hezkuntza Sistemak. Gizartearentzat beharrezkoa da psikologoak porrot egitea, bere egitura mantentzen jarraitzeko. Lehen mailako aldaketak proposatzen ditu psikologoak; gauzak aldatu, egitura lehenean mantentzeko. Bere biziraupena bermatzen duten arauen aldaketarik ezin daiteke sistemaren baretik etorri.

4.4. Bezeroak duen errealitatea ikusteko modua aldatzeko tekniken artean Ericksonen sarritan erabiltzen zuen teknika bereganatzen du Watzlawickek (1978), hots, terapeutak bezeroaren hizkuntza erabiltzen ikasi behar du, maila sintaktikoan, semantikoan eta komunikazio analogikoaren mailan. Bezeroak erabiltzen dituen irudi bidezko metaforak, sentipen fisikoen deskribapenak, soinuen analogiak, zaporeen metaforak, modako esamoldeak, esamolde idiosinkrasikoak, keinuak eta gorputz-jarrerak erabili behar ditu terapeutak.

Lehen garaietako ikuspegi sistemikoarentzat sistemak oreka mantendu eta berraurkitu behar zuen, bere homeostasia edo egonkortasuna zalantzan jarri zuten aldaketen aurrean. Aldaketa eragiten zuten indar morfogenetikoak aipatzen baziren ere, homeostasia azpimarratzen zen batez ere. Izan ere, terapeuta sistemikoek eskizofrenikoekin egiten zuten sarritan lana, eta kide eskizofrenikoa zuten familietan blokeatua agertzen zen aldaketarako joera; aldiz, homeostasiarako joerari zurrunki eusten zitzaion.

Sistema behatua eta sistema behatzailea etengabeko harremanean eta aldaketan daude, eta bien artean sistema berri bat osatzen dute. Lehen mailako zibernetikan behatzailea eta behatua bereizita agertzen dira. Baina, bigarren mailako zibernetikan harremanean daude behatzailea eta behatua, eta sistema berria osatzen dute. Aldaketa-mugimendua ez da sistema behatuaren kontua bakarrik, sistema behatzailearena ere bai. Bezeroak zer arazo duen aztertzea garrantzitsua da, baina terapeutak bezeroarekin eta haren arazoarekin duen arazoa aztertzea ere garrantzitsua da.

## 5. Ikuspegi kritikoak

5.1. Amerikako Familia-terapiaren gidariak gizonezkoak ziren XX. mendeko berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadetan, eta gizonezkoen genero-ikuspegia defendatu zuten. Terapietan agertzen zen familia-eredua bikote hete-

rosexualak eta beren seme-alabek osatua zen. Haurrik gabeko, gizonen edo emakumez bakarrik osaturiko familiarik ez zen agertzen. Botere-banaketaren eta identitate-sexualaren gaiak ez ditu ukitzen teoria sistemikoak. Ezkutuan edo ukitu gabe uzten ditu sexismoaren eta sistema patriarkalaren emaitzak.

Watzlawickek garatzen duen harreman simetrikoen eta osagarrien axioma ez du kontuan hartzen harreman osagarrien kontzeptuaren atzean botere-diferentziak gordetzen direla, hots, legeek egituratutako testuinguru batean emakumeek botere gutxiago dutela. Harremanetan gertatzen den desberdintasuna iragankorra eta azalekoa dela suposatzen du osagarritasunaren kontzeptuak. Era berean, zirkularitatearen kontzeptuak suposatzen du elkarreraginean ari diren pertsona guztiak ardura bera dutela gertatzen diren gauzetan, eta botere bera dutela beren elkarreraginetik ateratzen dena ekoizteko. Kausalitate zirkularra aldarrikatzen duten autore sistemikoentzat, portaera bortxatzailearen zergatiak elkarreraginean bertan daude, gizonen indarra erabiltzeko duen joeran baino gehiago. Eta terapeutari gomendatzen zaion neutralitateak suposatzen du terapeuta ezin dela inoren alde lerrokatu, eta desberdintasunek beren horretan jarraitu behar dutela; eragiten duten bortxaren erantzuleak ez direla gizonen indarra, elkarreraginean ari diren guztiak baizik. Horrelako suposizioek familiako kideen arteko botere eta eragin diferentzien kontzientzia ezabatzen dute.

Feminismoak kritika nahiko jarraitua egin izan dio ikuspegi sistemikoari, botere-banaketaren aurrean jarrera akritikoa eduki duela iruditzen baitzaio. Botere banaketaren aurrean harreman simetrikoko eta osagarriak txandakatu behar direla aldarrikatzea botere-desberdintasun egoera zuriztatze modua iruditzen zaio feminismoari. Gizartean nesken eta mutilen artean gertatzen den botere-banaketaren aurrean Naven zeremoniako erritualen antzekoak ospatzeak botere desberdintasunari eutsi egiten dio.

5.2. Paul Watzlawicki egozten zaionean terapia sistemikoak jendea baldintza mixerabletan bizitzera egokitzen duela, posible dena egitearen aldeko agertzen da, desiragarria dena egitearen aldeko baino gehiago, helburu utopikoek kontzentrazio eremuan sorrera ekarri dutela esanez.

Ikuspegi sistemikoa baikor agertzen da arazo psikologikoak komunikazio-prozesuetara mugatzerakoan, baina komunikazio-harremanetara mugatzen ez diren faktore psikologikoak badira. Ezin dugu mugatu pertsona bat sistema baten osagai soil izatera. Arazo psikikoak komunikazioaren harreman objektiboen sarean txertatzen dira, baina bada zerbait pertsonaren baitan esperientzia berberak errepikatzen eramate duena, edozein dela bere komunikazio-harremanen sarea. Inkontzientea onartzeak komunikazio-harremanen objektibazioa mugatzen du. Transferentziaren gertakariak adierazten du objektuak eraikitze modu iraunkorrak erabiltzen dituela pertsonak (Lacan, 1987). Hitz bitan esanda, komunikazio gertaerak maila subjektiboan eta objektiboan gertatzen dira.

Ikuspegi honetatik, komunikazioa bi inkontzienteen topo egite moduan ulertzen da: ez da bestea aurkitzen norbere desirak eta objektuaren errealitateak huts egiten ez badu. Objektua ez da kanpoan dagoen zerbait, haren ga-bezian sentitzen den zerbait baizik. Pertsonen arteko komunikazio betea fusio afektiboaren fantasma besterik ez da. Beraz, komunikazio guztien oinarrian inkontzientea baldin badago, metakomunikatzeko-gaitasunak ez du komunikazio-arazoak ebazteko bermerik ematen. Egia azaleratzera baino gehiago hura mozorrotzera eramaten du sarritan metakomunikazioak. Arrazionalizazio moduan ulertzen da.

5.3. Bestalde, ikuspegi sistemikoak ezkutatu egiten du harreman sozialen errealitatea. Komunikazio-gertakarien objektibatzea baldintzatzen duten determinante sozialei garrantzia kentzen die. Goffmanek (1971) gizarte elkarreaginean gertatzen diren portaeren determinatzaileak aztertzen ditu. Ikuspegi sistemikoak sarritan ahaztu ditu elkarreaginean ari direnen baldintza sozialak, eta pertsona abstraktuaz bakarrik jardun da. Elkarreaginean ari diren pertsonak, harremanean hasi baino lehen, beren baliabideak eta mugak dituzten pertsonak dira, eta horrek mugatu egiten du elkarreaginerako dituzten aukeren errepertorioa. Ikuspegi sistemikotik egiten den elkarreaginaren azterketak pertsonak elkarrekin daudenean gertatzen diren gertaerak bakarrik ikertzen ditu, baina harreman horiek osoki ulertzeko, aurretik hor dauden harreman sozialak aztertu behar dira. Hitzeko elkarreagina ulertzeko haien formak aurrez definitzen dituzten determinatzaile sozialak ulertu behar dira. Hitzeko eta ez-hitzeko lengoaia norberaren klase-maila sozialaren forma barneratua da. Harreman sozialek determinatzen dituzte pertsona baten elkarreagin-aukerak. Pertsonen jokatzeko modua beren maila sozialari dagokiona da.

5.4. XX. mendeko azken hamarkadan jarrera teorikoak gainditu eta eskuhartze klinikoaren pragmatismo operatorioari gehiago begiratzen hasi ziren Palo Altoko Eskolako kideak (Nardone eta Watzlawick, 2004). Joera horren aurrean, metodo manipulatzailerak erabiltzea egozten diete psikoanalistek terapeuta sistemikoei. Psikoanalisi sortu aurreko sugestio eta hipnosi metodoen antzeko agindu paradoxikoak erabiltzea egozten diete. Eta, neurri batean, halaxe da. Palo Altoko eskolak ez du inoiz baztertu Milton Eriksonen hipnosi klinikoa, nahiz eta ez duen oinarrizko tresna moduan erabiltzen. Terapia sistemikoarentzat garbi dago terapeutak bezeroaren gain eragina eduki behar duela. Psikoanalistek ez bezala, terapeuta sistemikoei onartzen dute bezeroa manipulatzeko dutela. Terapeutaren lana ez da mugatzen ispilu izatera edo interpretatzera. Terapeutak amaiera gabeko jokatik irteteko aukera eman behar dio familiari: familiak barnetik sortu ezin dituen joko-arauak txertatu behar ditu terapeutak familian. Hizkuntza-egiturek edo hizkuntza-jokek efektu hipnotikoa dute. Eskuin-hemisferioaren bidez ekiten dute eta psikoterapiaren hizkuntza tradizioaletik aldenitu egiten dira.

## Erreferentzia bibliografikoak

- ANDERSON, H. eta GOOLISHIAN, H. (1990), «Beyond cybernetics: Comments on Atkinson and Heath's «Further thoughts on second-order family therapy»». *Family Process* 29: 157-163.
- ANDERSON, H. eta GOOLISHIAN, H. (1992), «The client as the expert: a not knowing approach to therapy». In S. McNee & K. Gergen (arg.), *Therapy as a Social Construction*, London: Sage Publications, 25-39 or.
- ANDOLFI, M. (1987), *Terapia familiar*. Barcelona: Paidós.
- BATESON, G. (1936), *Naven*. Stanford, CA: Stanford University Press.
- BATESON, G., JACKSON, D., HALEY, J. eta WEAKLAND, J. (1956), «Toward a theory of schizophrenia». *Behavioral Science*, 1: 251-264
- GERGEN, K.J. (1994), *Realities and Relationships: Soundings in Social Construction*. Cambridge, Massachusetts, Harvard University Press.
- GOFFMAN, E. (1971), *Les rites d'interaction*. Paris: Editions de Minuit.
- HALEY, J. (1963), *Strategies of Psychotherapy*. New York: Grune & Stratton.
- HOFFMAN, L. (1985), «Beyond Power and Control: Toward a «Second Order» Family Systems Therapy». *Family Systems Medicine* 3 (4): 381-96
- LACAN, J. (1987), *Ecritos I*. México: Siglo XXI editores.
- MARUANI, G. eta WATZLAWICK, P. (1982), *L'Interaction en médecine et en psychiatrie*. Paris: Genitive.
- NARDONE, G. eta WATZLAWICK, P. (arg.). (2004), *Brief Strategic Therapy: Philosophy, Technique and Research*. Lanham, MD: Rowman & Littlefield Publishers – Aronson Group.
- SATIR, V. (1972), *Peoplemaking*. Palo Alto, California: Science and Behavior Books.
- SELVINI PALAZZOLI, M., ANOLLI, L., DI BLASIO, P. eta GIOSSI, L. (1984), *Dans les coulisses de l'organisation*. Paris: Éditions ESF.
- WATZLAWICK, P. (1964), *An Anthology of Human Communication; Text and Tape*. Palo Alto, California: Science and Behavior Books.
- WATZLAWICK, P. (1976), *How Real Is Real? Confusion, Disinformation, Communication*. New York: Random House.
- WATZLAWICK, P. (1978), *The Language of Change*. New York: Basic Books, Inc.
- WATZLAWICK, P. (arg.). (1984), *Invented Reality: How Do We Know What We Believe We Know?* New-York: W. W. Norton and Co.
- WATZLAWICK, P., BEAVIN, J. H. eta JACKSON, D. D. (1967), *Pragmatics of human communication: A study of interactional patterns, pathologies, and paradoxes*. New York: W. W. Norton.
- WATZLAWICK, P., WEAKLAND, J. eta FISH, R. (1974), *Change. Principles of Problem Formation and Problem Resolution*. New York: W.W. Norton Company.
- WATZLAWICK, P. eta WEAKLAND, J. (1977), *The Interactional View*. New York: W.W. Norton.
- WHITAKER, C.A. (1977), «The Technique of Family Therapy». In G.P. Sholevar (arg.) *Changing sexual values and the family*. Springfield, Ill: Charles Thomas.